

# **Iketz eta San Eloy bizirik! Gure lanpostuak defendatuko ditugu!**

Iketz (Abadiño) eta San Eloy (Elorrio) ixteko arrisku larrian daude, eta bertan lanean diharduten 210 langileen etorkizuna zalantzan dago.

2012ko otsailean bazkideek enpresa biak finantza egoera oso larrian zeudenaren zurrumurrua zabaldu zuten, eta orduz gero hartutako gestio erabakien ondorioz egoerak nabarmen okerrera besterik ez du egin. 2012ko irailaren 19an enpresa bientzako konkurtso-prozedura eskatu zuten arte.

Irailetik hona enpresa taldea erosteko interesa azaldu duten erosle ezberdinengatik ere, ez dugu oso esperientzia ona izan:

- Horietako bat, LEAX enpresa suediarra izan da. Orain dela gutxi jakin dugunez, bazkideek enpresa taldeak zuen zor guztia bere gain hartzeaz gain, bakoitzarentzako diru-sari estra bat eskatu zioten LEAX-i. Beraz, alde egin zuen.

- Beste bat Esmorís jauna da, eta bazkideekin batera, noski, Iketz eta San Eloy horren egoera larrian egotearen arduradun zuzena da. Hilabeteen zehar, bezeroekin berak nahi duen askatasun guztia izan du eta bere proiektua aurkeztearekin batera, prezioak igoko zituela esan zien. Hortik, Daimler eta Konsberg enpresek ez zutela San Eloy taldearekin lanean jarraituko esan zuten. Egoera horretan, Esmoris-i ez zioten zenbakiak ematen; bere helburua lehen urtetik 1.000.000 euro irabaztea baitzen. Langileen ordezkariekin akordioa ia adostua zegoenean, bezeroak galdu zituzenez, joan egin zen (orain Tubacex-eko Aholkulari Delegatua da). Inbertsorerik gabe, eta etorkizuna beltz ikusten zuenez, martxoaren hasieran Volkswagen enpresak ere, IKETZen %33 inguruko fakturazioarekin, alde egingo zuela esan zuen.

Bien bitartean bazkideak desagertuta daude, urteetan sortutako aberastasuna poltsikoratu eta, orain, duten erantzukizuna ez dute bere gain hartu, bezero berriak lortzen ere ez dira ahalegindu. Beraiek sortutako miseriak langileek irenstea gura dute eta 244 familia kale gorrian gelditzeak ez diela batere axola demostratu dute.

Eusko Jaurlaritzaren erantzule zuzena da egoera honetan. Azken urteetan, enpresaren gestioa txarra txalotu eta 2010ean San Eloyri 1.300.000 euro eta Iketzi 600.000 euro eman zizkioten, diru horren erabilpenaren inongo kontrolik gabe. Hori nahikoa ez eta 2011ko abenduan Fundiciones San Eloyri beste 1.500.000 euro eman eta, gainera, Jaurlaritzak enpresaren akzioen %18a eskuratu zuen. Hau da, Jaurlaritzaren San Eloyko bazkidea da. Gainera, jakin izan dugunagatik, azken hilabeteetan egoera okertu duen inbertitzaile horrek, proiektuarekin aurrera egiteko 6.000.000 euro eskatu zizkion, eta Jaurlaritzak 3.000.000 euro ematea onartu zuen. Horregatik, Jaurlaritzari eskatzen diogu 210 lanpostuak defenda ditzala eta 1.8 milioi euroren xahutzea ekidin dezala.

Guzti horregatik, LAB sindikatuak martxoaren 1ean Arantza Tapiari gutuna entregatu zion Gasteizen bertan, Iketz eta San Eloy-taz arduratu zedin, proposamen konkretu eta erreala egin zezaten, eta Volkswagen-ekin bitartekaritza egin zezaten eskatuz.

Egun hauetan, Administrari Konkurtsalak bezero ezberdinekin egindako harreman errondan, batek ere ez du bermatu Iketz eta San Eloyrekin duten konpromisoa. Beraz, Volkswagen galduta eta beste guztiak zalantzan edukita; IKETZ eta SAN ELOY arrisku larrian daude. Egungo datuen arabera, San Eloy-en maiatzera arte dago lana eta Iketz-en apirilera arte. Hau da, laster 210 langile egon daitezke kale gorrian!

**211 lanpostu arriskuan!  
Martxoaren 23an, 18:00tan  
MANIFESTAZIOA Elorriko Plazatik**



Oraindik ere lortu dezakegu,  
**Langile borrokaz lortuko dugu!**

